

# Motorraren egonkortasuna


## Faseak

Karga duen motor batean hiru fase bereiz daitezke:

1. **ABIOA.** Motorra sare elektrikora konektatzean bi momentu agertzen dira: abioaren barne-momentua ( $M_{ia}$ ) eta abioaren momentu erresistentea ( $M_{ra}$ ). Barne-momentua handiagoa izan behar du motorra martxan jartzeko.

2. **AZELERAZIOA.** Martxan jartzeari jarraitzen dion fasea da hau. Barne-momentua handiagoa izan behar du, erregimen normala lortu arte azeleratzen doalako.

3. **ERREGIMEN NOMINALA.** Funtzionamenduko abiadura lortu da. Barne-momentua eta momentu erresistenteak berdinak izan behar dute; honela, abiadura konstante mantenduko da.



# Motorraren egonkortasuna

## Funtzionamenduaren egonkortasuna

Motor baten funtzionamendua egonkorra ala ezegonkorra izan daiteke, motorraren eta kargaren erlazioaren arabera.

Motorraren funtzionamendua EGONKORRA izateko, bi momentuen malden artean ( $M_i$  eta  $M_r$ ) erlazio hau eman behar da:

a) abiadura handitzen bada

$$\Delta n > 0 \rightarrow M_i - M_r < 0$$

b) abiadura txikitzen bada

$$\Delta n < 0 \rightarrow M_i - M_r > 0$$

Honela, edozein arrazoi dela eta, abiadura handitzen bada, momentu erresistentea handiagoa delako, sistema autoerregulatuko da eta abiadura berriro gutxitu egingo da.

Aldiz, abiadura gutxitzen bada, barne-momentua handiagoa denez, abiadura handitu egingo da aurreko erregimena lortu arte.

